

## "Egunkaria", aurrera

*Deia*, 1990-09-20.

Irakurleak ezagutzen ditu orain arte euskal egunkariaz izan ditugun zeharkako harremanak. Erdaraz, gainera: galdetu bezala erantzun.

Baina, joan den 11ean DEIA-k euskaraz argitaratutakoa pozik aipa nahi dut gaur euskaraz: haserrerik gabe, geure artekoari dagokion bezala.

Kultura saileko orrialdean bi lan datoz:

Bat, Joserramun Beloki izan dela Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak izendatu duena bere egitasmoko euskal egunkaria bideratzeko. Gizon eta kazetari egokia, dudarik gabe; sentitzen dugun gauza bakarra zera da: geure elkarrizketaren eskea kontuan hartu gabe ekin diola Kulturako Kontseilari jaunak baten ordeztu bi egunkari ateratzeko asmoari, zeren eta, geuk aspaldi aurreratu bezala, bitarte luze honetan hasiak ginen gure asmoak aurrera ateratzeko lanak egiten.

Orain zuzendu daiteke diakronia hau, egunkaria bat egitea baita, zentzuak agintzen digun bezala, gure asmo nagusia, eta honetarako egin behar direnak egiteko prest baitgaude oraindik ere, harreman honetarako biderik ematen badigute.

Bigarren lana, Zeruko Argiak 1983an, orain zazpi urte, argitaratu zuen editoriala da. Esaten digu "Euskal prentsa osoa babestu beharra" izeneko lan honek noiz eta non argitaratu zen, baina ez digu gaur birargitaratzeko dituzten arrazoinik ematen.

Garai hartako editorialaren puntu nagusiak hauek dira:

1. "Gure abururako –dio– egunkari hori aurrera ateratzen ematen diren bitarteko berdinak eskaini behar zaizkie martxan dauden edota eginkizun leudekeen beste medio edo prentsa bide guztiei; hitz batez, Euskal Prentsa babesteko lege bat; eta garbi dago legearena aipatzen dugunean Gasteiza zuzentzen ditugula hitzok, egunkariaren gaiak hantxe dauka momentu honen erdigunea eta (...) Areago iruditzen zaigu kanpaina publikorik edota eritzi korronterik antolatuko balitz, ez lukeela izan behar soilik euskarazko egunkaria eskatuz, euskal prentsa babesteko duen lege bat eskatuz baizik. Are gehiago, egunkariarena lege horren barnean sartuko litzakeela kontuan hartzen badugu".

Hau da neuk garai hartako editorialari ikusten diodan giharra; kontuan hartuz, noski, garai hartan Bilboko Anaitasuna eta Donostiako Saski Noski hil zorian zeudela, eta Argia bera gero konpondu ziren estuasunetan.

Beraz, orain dela zazpi urteko arazoak arazo, galera hark gaurko behar eta ekintzak jarri behar dizkigu agerian: azken urte hauetan euskarak aurrerako pauso nagusi bat eman du, kezkarik gabe: Euskal Telebista, irratiak, euskalduntze kanpainak eta batez ere beti gure esanaren diren herrian sortutako Ikastolen lan harrigarriak kontuan harturik! Ba honetxek bultzata ikusten da gehigarri hau, euskal Egunkari hau, behar-beharrezko dela, egindakoa sendotuko bada.

Hemendik gora ere badago zer pentsa eta ze egin euskara bizirik irteten ikusteko!